

***Emakumeen eta gizonen
berdintasun alorreko teknikarien
lan-poltsa***

1. ariketa, zati teorikoa

A eredua

2015/02/27

1 NOLA HASTEN DIRA ADMINISTRAZIO-PROZEDURAK?

- 1a) Ofizioz beti.
- 1b) Ofizioz edo interesdunaren eskariz.
- 1c) Ofizioz inoiz ez.
- 1d) Ofizioz, arduradunen aginduen ondorioz.

2 NOLA ESATEN ZAIO PROZEDURA AMAITZEARI, ESKAERAREN OINARRI DEN ESKUBIDEA ALDE BATERA UZTEAREN BITARTEZ?

- 2a) Ebazpena.
- 2b) Iraungitzea.
- 2c) Uko egitea.
- 2d) Errebokazioa.

3 DATU PERTSONALETARAKO FITXATEGIEI BURUZKO OTSAILAREN 25EKO 2/2004 LEGEAREN ARABERA, ZER DA FITXATEGI BAT?

- 3a) Datu pertsonalen multzo antolatu oro, datu-multzoa sortu, jaso, antolatu eta eskuratzeko modua edozein dela ere.
- 3b) Identifikaturiko edo identifika daitezkeen pertsona fisikoen gaineko edozein informazio.
- 3c) Datuen bilketa egiteko balio duen edozein eragiketa eta/edo tratamendu tekniko, automatizatua izan edo ez.
- 3d) Datu pertsonalen tratamendua onartzen duen edozein borondate-adierazpen.

4 DATUAK HASIERA BATEKO HELBURU ZEHATZAK ETA BIDEZKOAK LORTZEKO EGOKIAK, EGOERARI DAGOZKIONAK ETA NEURRIKOAK IZATEARI DAGOKIONEZ, IZAERA PERTSONALEKO DATUAK, TRATATU AHAL IZATEKO, NOIZ JASO AHAL IZANGO DIRA?

- 4a) Egokiak eta baliagarriak badira, baina ez gehiegizkoak.
- 4b) Bidezkoak eta beharrezkoak badira.
- 4c) Beharrezkoak eta egokiak badira, baina ez gehiegizkoak.
- 4d) Egokiak eta beharrezkoak badira, baina ez gehiegizkoak.

5 DATU PERTSONALEN TITULARRAK BA AL DU ESKUBIDERIK BERE DATUAK EZABA DAITEZEN ESKATZEKO?

- 5a) Bai, zuzentzeko eskubidea da hori.
- 5b) Bai, ezerezteko eskubidea da hori.
- 5c) Bai, aurka egiteko eskubidea da hori.
- 5d) Ez, gehienez ere datuak blokeatzea lor dezake, baina ez ezabatzea.

6 EUSKO JAURLARITZAK EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLAN BAT ONARTZEN DU LELEGINTZALDI BAKOITZEAN.

- 6a) Plan orokor bat da: jarraibide eta esku-hartze ildo batzuk jasotzen ditu —koordinatuta eta osotasunez—, EAeko botere publikoek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan egin beharreko jarduerak gidatzeko.
- 6b) Eusko Jaurlaritzako sailek, foru aldundiek eta udalek plan horretako esku-hartze ildoekin eta jarraibideekin bat etorriz onartzen dituzte berdintasunerako planak edo programak.
- 6c) Eusko Jaurlaritzako sailen, foru aldundien eta udalen planei eta programei Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak egiten die txostenak.
- 6d) Erantzun guztiak dira zuzenak.

7 ZER DA SEXUA-GENEROA SISTEMA?

- 7a) Prozesu bat da, eta prozesu horren bidez sozializatzen gara emakumeak eta gizonak, edozein direlarik ere gure sexua eta generoa.
- 7b) Prozesu bat da, eta emakumeek eta gizonek prozesu horren bidez definitzen dugu gure sexu-orientazioa, bizi garen gizarte-ereduaren arabera.
- 7c) Sozializazio-prozesu bat da, eta prozesu horren bidez hartzen dugu genero-identitatea, hau da, "gizon edo emakume egiten gara" prozesu horren bidez, bizi garen gizarte-ereduaren arabera.
- 7d) Prozesu bat da, eta emakumeek eta gizonek prozesu horren bidez definitzen dugu gure sexu-orientazioa, edozein direlarik ere gure sexua eta generoa.

8 IKASKETEN EMAITZEI ETA IKASKETA-MAILEI BURUZKO ADIERAZLEETAN

- 8a) Emakumeak egoera hobixeagoan daude, oro har.
- 8b) Emakumeak egoera hobixeagoan daude, oro har, nahiz eta aldeak handitu egiten diren bigarren hezkuntzaren ondoren.
- 8c) Gizonak egoera hobixeagoan daude, oro har.
- 8d) Gizonak egoera hobixeagoan daude, oro har, nahiz eta aldeak handitu egiten diren bigarren hezkuntzaren ondoren.

9 EMAKUME GUTXI DAGOEN SEKTORE BATEAN EMAKUMEENTZAKO PRESTAKUNTZA-IKASTARO ESPEZIFIKO BAT EGINEZ GERO, ZER EGITEN DUGU?

- 9a) Babes-ekintza bat.
- 9b) Ekintza positibo bat.
- 9c) Gizonak diskriminatzen dituen ekintza bat.
- 9d) Horietako erantzun bat ere ez da zuzena.

10 ZER ESKATZEN DU MAINSTREAMINGAK, HOTS, ADMINISTRAZIOAREN JARDUNEAN GENERO-IKUSPEGIA SARTZEAK?

- 10a) Edozein arauk, jarduerak edo neurrik emakumeen eta gizonen egoeran sortzen duen eragina aztertzea, ebaluazioan soilik.
- 10b) Edozein arauk, jarduerak edo neurrik emakumeen eta gizonen egoeran sor dezakeen eragina aztertzea, aldez aurretik soilik.
- 10c) Edozein arauk, jarduerak edo neurrik emakumeen eta gizonen egoeran sor dezakeen eragina aldez aurretik aztertzea, eta eragindako ondorioak ebaluazioan aztertzea.
- 10d) Erantzun guztiak dira zuzenak.

11 ZER DA EMAKUME BAT HAURDUN EGOTEAGATIK EZ KONTRATATZEA?

- 11a) Diskriminazio zuzena.
- 11b) Zeharkako diskriminazioa.
- 11c) Diskriminazio positiboa.
- 11d) Alderantzizko diskriminazioa.

12 PERTSONA BAT, DUEN SEXUAGATIK, DESBERDIN TRATATZEA:

- 12a) Diskriminazio positiboa kontzeptuaren barruan dago, eta, beraz, beti egin daiteke.
- 12b) Inoiz ere ezin daiteke egin.
- 12c) Egoki eta beharrezko denean baino ezin daiteke egin, eta sexuari ez dagozkion irizpide objektiboekin justifikatu daitekeenean baino ez.
- 12d) Iraupen jakin baterako denean baino ezin da egin.

13 ZER DA EMAKUMEAREN AURKAKO DISKRIMINAZIO-MOTA GUZTIAK EZABATZEKO KONBENTZIOA?

- 13a) Tresna programatiko bat, indar arautzaile juridikorik gabea.
- 13b) Arau juridiko lotesle bat.
- 13c) Ekintza administratibo bat.
- 13d) Horietako erantzun bat ere ez da zuzena

14 ZER DA EMAKUMEAREN AURKAKO DISKRIMINAZIO-MOTA GUZTIAK EZABATZEKO KONBENTZIOA?

- 14a) Nazioarteko trena bat da: Nazio Batuen Erakundeko Biltzar Orokorrak onartu zuen (NBE), eta estatu guztiak sina dezakete.
- 14b) Europako Kontseiluak onartu zuen, eta, ondorioak izan ditzan, estatuek berretsi egin behar dute aldez aurretik.
- 14c) Europako tresna bat da: Europako Kontseiluak onartu zuen, Europar Batasuneko estatu guztiei eragiten die, eta ez da berretsi behar.
- 14d) Nazioarteko trena bat da: Lanaren Nazioarteko Erakundeak onartu zuen (LANE), eta estatu guztiak sina dezakete.

15 ZER DA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO 2010-2015 ESTRATEGIA?

- 15a) Tresna programatiko bat, indar arautzaile juridikorik gabea.
- 15b) Arau juridiko lotesle bat.
- 15c) Egintza administratibo partikular bat.
- 15d) Horietako erantzun bat ere ez da zuzena.

16 EUROPAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO 2010-2015 ESTRATEGIAN, EUROPANO BATZORDEAREN EKINTZA GILTZARRI BATZUK JASOTZEN DIRA. EKINTZA HORIETAN ZER AURREIKUSTEN DA?

- 16a) Emakumeen osasunari buruzko txosten bat egitea baino ez.
- 16b) Emakumeen espiritu enpresariala eta jarduera autonomoa sustatzea eta erabakiak hartzerakoan sexu bien arteko oreka hobetzeko ekimen espezifikoak aztertzea.
- 16c) Ez da ezer aurreikusten kirolaren eremuari dagokionez.
- 16d) Erantzun guztiak dira zuzenak.

- 17 4/2005 LEGEA, OTSAILAREN 18KOA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKOA. NORAKO DIRA LEGE HORRETAKO ARAUAK?**
- 17a) Sektore publikorako baino ez.
 - 17b) Sektore pribaturako baino ez.
 - 17c) Sektore publikorako gehiago, sektore pribaturako baino.
 - 17d) Sektore publikorako eta pribaturako, hein berean.
- 18 4/2005 LEGEA, OTSAILAREN 18KOA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKOA. LEGE HORRETAN, NORI AGINTZEN ZAIO SEKTORE PRIBATUAN BERDINTASUN PRINTZIPIOA ETA SEXUAN OINARRITUTAKO DISKRIMINAZIORIK EZA DEFENDATZEA?**
- 18a) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundeari.
 - 18b) Emakunde–Emakumearen Euskal Erakundeari.
 - 18c) Arartekoari.
 - 18d) Hiru erakundeei.
- 19 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUN ERAGINGARRIRAKO MARTXOAREN 22KO 3/2007 LEGE ORGANIKOAN ERREGULATZEN DIREN ALDERDIEN ARTEAN, BAT EZ DAGO JASOTA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO OTSAILAREN 18KO 4/2005 LEGEAN. ZEIN?**
- 19a) Diskriminazio zuzena.
 - 19b) Ekintza positiboa.
 - 19c) Frogatu beharraren kargaren inbertsioa, sexuan oinarritutako diskriminazio kasuetan.
 - 19d) Emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatuaren printzipoia.
- 20 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUN ERAGINGARRIRAKO MARTXOAREN 22KO 3/2007 LEGE ORGANIKOAREN ARABERA, ZER DA SEXUAN OINARRITUTAKO ZEHARKAKO DISKRIMINAZIOA?**
- 20a) Itxuraz neutroa den xedapen, irizpide edo praktika batek sexu jakin bateko pertsonak desabantailan uztea, beste sexuko pertsonekiko.
 - 20b) Pertsona bat, duen sexuaren ondorioz, antzeko egoera batean dagoen beste bat baino okerrago tratatzea, horrela tratatu izana, edo horrela tratatzeko arriskuan egotea.
 - 20c) Itxuraz neutroa den xedapen, irizpide edo praktika batek sexu jakin bateko pertsonentzat desabantsaila jakin bat ekartzea beste sexuko pertsonekiko, salbu eta xedapen, irizpide edo praktika horiek denbora-muga jakin baterako badira eta xede horiek lortzeko bideak beharrekoak eta egokiak badira.
 - 20d) Itxuraz neutroa den xedapen, irizpide edo praktika batek sexu jakin bateko pertsonentzat desabantsaila jakin bat ekartzea beste sexuko pertsonekiko, salbu eta xedapen, irizpide edo praktika horiek modu objektiboan justifikatzekoak badira xede legitimo bat lortzeko, eta xede hori lortzeko bideak beharrekoak eta egokiak badira.

- 21 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO OTSAILAREN 18KO 4/2005 LEGEAREN 25. ARTIKULUKO AURREIKUSPENEN ARABERA,**
- 21a) Emakumeek gizonekiko berdintasunean parte hartza onartzen ez duten edo oztopatzen duten kultura-jarduerarik ezin da antolatu edo egin gune publikoetan.
 - 21b) Emakumeek gizonekiko berdintasunean parte hartza onartzen ez duten edo oztopatzen duten kultura-jarduerak antolatu eta egin daitezke gune publikoetan, baina ezin da lagunza publikorik jaso.
 - 21c) Emakumeek gizonekiko berdintasunean parte hartza onartzen ez duten edo oztopatzen duten kultura-jarduerak antolatu eta egin daitezke gune publikoetan, eta lagunza publikoak jaso daitezke.
 - 21d) Horietako erantzun bat ere ez da zuzena.
- 22 EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEKO ZUZENDARITZA KONTSEILUAREN EGITEKO EZ DA HONAKO HAU ONARTZEA ETA GERO JAURLARITZARI AURKEZTEA:**
- 22a) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana.
 - 22b) Erakundeko zuzendariaaren izendapena.
 - 22c) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko arau-proiektuak.
 - 22d) Botere publikoek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan egindakoari buruzko memoria.
- 23 EUSKO JAURLARITZAKO BERDINTASUNERAKO UNITATEAK ARAUTZEN DITUEN AZAROAAREN 27KO 213/2007 DEKRETUAAREN ARABERA, UNITATE HORIEK ZER DUTE BEHARREZKO?**
- 23a) Aurrekontu propioa eta xehatua izatea.
 - 23b) Langileen Zuzendaritzetara atxikita egotea.
 - 23c) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko gaitasuna eta/edo esperientzia duten langileak edukitzea.
 - 23d) Horietako erantzun bat ere ez da zuzena.
- 24 BERDINTASUNERAKO UNITATE BAT EGOTEA BEHARREZKO DA:**
- 24a) Eustaten.
 - 24b) Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzian.
 - 24c) Lanbiden.
 - 24d) Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuan.
- 25 ZEIN ORGANOK KOORDINATZEN DITU EUSKO JAURLARITZAK EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN ARLOAN EGITEN DITUEN JARDUERAK?**
- 25a) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordeak.
 - 25b) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordeak.
 - 25c) Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Zuzendaritza Kontseiluak.
 - 25d) Horietako erantzun bat ere ez da zuzena.

26 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO SAILARTEKO BATZORDEAN, HONAKO HAUEK DAUDE ORDEZKATUTA:

- 26a) Eusko Jaurlaritzako sail guztiak.
- 26b) Eusko Jaurlaritzako sail guztiak, Lehendakaritza eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea.
- 26c) Eusko Jaurlaritzako sail guztiak, Eusko Jaurlaritzako zuzenbide pribatuko erakunde publiko eta erakunde autonomo guztiak, Lehendakaritza eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea.
- 26d) Horietako erantzun bat ere ez da zuzena.

27 NOR DA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ERAKUNDE ARTEKO BATZORDEKO BURU?

- 27a) Lehendakaria.
- 27b) Lehendakaritzaren idazkaria.
- 27c) Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria.
- 27d) Arartekoa.

28 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ERAKUNDE ARTEKO BATZORDEAK

- 28a) Gaitasuna du irizpideak proposatzeko, 4/2005 Legean ezarritakoa aplikatzerakoan EAEko administrazio publikoen artean sor daitezkeen eskumen-gatazkak konpontzeko.
- 28b) Gaitasuna du eskumen-gatazkak konpontzeko, 4/2005 Legean ezarritakoa aplikatzerakoan EAEko administrazio publikoen artean halako gatazkaren bat sortzen denean.
- 28c) Ez du gaitasunik eskumen-gatazkak konpontzeko jarduerarik egiteko.
- 28d) Horietako erantzun bat ere ez da zuzena.

29 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO VI. PLANAREN EGITURAN, HONAKO HAUEK DAUDE SARTUTA:

- 29a) Balio-al daketa eta ahalduntzea, gizarte antolakuntza erantzukidea, eta emakumeen aurkako indarkeria desagerraztea.
- 29b) Emakumeen eta gizonen berdintasunerako gobernantza, balio-al daketa eta ahalduntzea, gizarte antolakuntza erantzukidea, eta emakumeen aurkako indarkeria desagerraztea.
- 29c) Emakumeen eta gizonen berdintasunerako gobernantza, balio-al daketa eta ahalduntzea, gizarte antolakuntza erantzukidea, ordezkaritza orekatua, eta emakumeen aurkako indarkeria desagerraztea.
- 29d) Erantzun guztiak dira zuzenak.

30 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO VI. PLANEAN, NEURRI HAU EZ DAGO JASOTA GOBERNANTZA HOBETZEKO NEURRIEN ARTEAN:

- 30a) Berdintasunerako unitate administratiboak sortzea eta indartzea.
- 30b) Erantzunkidetasuna eta zaintzaren etika bultzatzea.
- 30c) Aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzea.
- 30d) Hautaketa-epaimahaietan emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua sustatzea.

- 31 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO AURREIKUSITAKOAREN ARABERA, ZER EBALUATU BEHAR DA? VI. PLANEAN**
- 31a) Betetze-maila.
 - 31b) Koherentzia.
 - 31c) Prozesua.
 - 31d) Erantzun guztiak dira zuzenak.
- 32 NORK DAUKA EAEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO VI. PLANA EBALUATZEKO ESKUMENA?**
- 32a) Eusko Legebiltzarrak.
 - 32b) Eusko Jaurlaritzak.
 - 32c) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordeak.
 - 32d) Emakunde—Emakumearen Euskal Erakundeak.
- 33 NORK EGIN BEHAR DU GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN TXOSTENA?**
- 33a) Emakunde—Emakumearen Euskal Erakundeak.
 - 33b) Araua sustatzen duen saileko berdintasun-unitateak.
 - 33c) Araua sustatu duen organoak, unitate izapidegilearen bitartez.
 - 33d) Horietako erantzun bat ere ez da zuzena.
- 34 GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN AURREKO EBALUAZIOA:**
- 34a) Xedapen orokoren proiektuetan egin behar da, salbuespenak salbuespen.
 - 34b) Laguntza publikoetarako deialdietan ez da ebaluaziorik egin behar, edozein delarik ere laguntza mota.
 - 34c) Administrazioaren jardunean eta araugintzan genero-ikuspegia sistematikoki sartzeko balio du.
 - 34d) Erantzun guztiak dira zuzenak.
- 35 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO OTSAILAREN 18KO 4/2005 LEGEAREN ARABERA, HIZKERA EZ-SEXISTA ERABILTZEA BEHARREZKO DA**
- 35a) EAEko administrazio publiko guztiak zuzenean sortzen dituzten dokumentuetan eta euskarrieta.
 - 35b) EAEko bote publiko guztiak zuzenean eta beste pertsona edo erakunde batzuen bitartez sortzen dituzten dokumentuetan eta euskarrieta.
 - 35c) EAEko herritar guztientzat.
 - 35d) Horietako erantzun bat ere ez da zuzena.
- 36 MASKULINOA GENERIKO GISA ERABILTZEA:**
- 36a) Hizkuntza zuzen eta sexismorik gabe erabiltzea da, Hizkuntzaren Errege Akademiak hala ezartzen duelako.
 - 36b) Beste aukera bat da, hizkera ez-sexista erabiltzeko.
 - 36c) Hizkuntzaren erabilera androzentrikoa da, gizonak gauza guztien zentro eta neurri gisa hartzen dituelako.
 - 36d) Erantzun guztiak dira zuzenak.

37 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO VI. PLANAREN 1. ARDATZEAN, EMAKUMEEN AHALDUNTZE MOTA HAUEK DAUDE:

- 37a) Pertsonala, kolektiboa, soziala eta politikoa.
- 37b) Pertsonala eta kolektiboa.
- 37c) Pertsonala, soziala eta politikoa.
- 37d) Pertsonala, kolektiboa eta soziala.

38 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO VI. PLANAREN ARABERA, ZER DA AHALDUNTZEA?

- 38a) Emakumeek bizi-ahalmenak hartzea, gizonek dituzten baldintza eta aukera berberekin abiatu ahal izateko.
- 38b) Prozesu bat da, eta prozesu horren bidez, emakumeak, gizonen aurkako borrokan, eraldatu egiten dira, eta jabetza pribatua eta boterea lortzen dute; horren ondorioz, aldatu egiten dira genero-harremanak
- 38c) Ahalduntzea eraldaketa-prozesu bat da, eta, horren bidez, emakumeak, poliki-poliki eta, batzueta, urrats handiak eginez, historiako, politikako eta kulturako objektu izateari uzten dio, besteen objektu izateari uzten dio; hots, besteentzako izateari uzten dio, eta bere bizitzako subjektu bilakatzen da; bera da historiako, kulturako, politikako eta gizarte-bizitzako protagonista.
- 38d) Horietako erantzun bat ere ez da zuzena.

39 ZEIN EZ DA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO VI. PLANAREN HELBURU?

- 39a) Kontziliazio-neurriei heltzen dieten gizonen ehunekoa handitzea.
- 39b) Eredu maskulino tradizionala zalantzan jartzen duten eta berdintasunarekin koherenteak diren portaerak dituzten gizonen kopurua handitzea.
- 39c) Zaintza partekatuaaren aldekoak diren gizonen kopurua handitzea.
- 39d) Gizek etxeko lanetan eta zaintza-lanetan denbora gehiago ematea.

40 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO VI. PLANAREN ARABERA, GIZONEK, BERDINTASUNAREN BALIOA BARNERATZEKO, IKASI EGIN BEHAR DUTE HONAKO HAUEI GEHIEGIZKO BALIORIK EZ EMATEN:

- 40a) Beren gorputzari.
- 40b) Beren gaitasunei.
- 40c) Beren ekintzei.
- 40d) Erantzun guztiak dira zuzenak.

41 103/1998 DEKRETUAREN ARABERA, ZER ASMO DU EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEKO AHOLKU BATZORDEAK?

- 41a) Komunikazio-bide izatea emakume-elkarteen eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen artean, alegia, gune amankomun bat ahalbidetza, euskal gizartean emakumeek bete behar duten egiteko aldatzeko proposamenak, kritikak eta ekarpenak egiteko.
- 41b) Emakumeek eta elkarteeek politika sozial, ekonomiko eta kulturalen garapenean eraginkortasunez eta modu askean parte hartzeko bidea izatea, eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan EAEko administrazio publikoekin hitz egiteko solaskide onargarrria izatea.
- 41c) Gune amankomun bat sortzea, Erakundeak, jarduera planak egiterakoan, kontuan hartu ahal ditzan emakumeen elkarteeek eta antolakunde mistoetako emakume-atalek egindako ekarpenak.
- 41d) Erantzun guztiak dira baliozkoak.

42 NORTZUEK OSATZEN DUTE EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEKO AHOLKU BATZORDEA?

- 42a) Emakume-elkarteeek soilik.
- 42b) Emakume-elkarteeek eta estatutuetan jasotako helburu bakarra emakumeak defendantza eta sustatzea duten fundazioek.
- 42c) Emakume-elkarteeek eta estatutuetako helburuen artean emakumeak defendantza eta sustatzea duten fundazioek.
- 42d) Emakume-elkarteeek eta estatutuetan jasotako helburu bakarra emakumeak defendantza eta sustatzea duten fundazioek, eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko langileek.

43 NORTZUEK JASO DEZAKETE "EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO LANKIDETZA ERAKUNDEA"REN AITORPENA?

- 43a) Osasunaren, gizarte eta lanaren eta hezkuntzaren eremuan emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko ekimenak egiten dituen edozein erakunde publikok edo pribatuk, administrazio publikoek izan ezik.
- 43b) Gizarte eta lanaren eremuan emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko ekimenak egiten dituen edozein erakunde publikok edo pribatuk.
- 43c) Gizarte eta lanaren eremuan emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko ekimenak egiten dituen edozein erakunde publikok edo pribatuk, administrazio publikoek izan ezik.
- 43d) Gizarte eta lanaren eta hezkuntzaren eremuan emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko ekimenak egiten dituen edozein erakunde publikok edo pribatuk.

44 ZER EGIN BEHAR DA "EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO LANKIDETZA ERAKUNDEA"REN AITORPENA LORTZEKO?

- 44a) Urteko jarduera-plan bat baino ez.
- 44b) Egoerari buruzko diagnostiko bat eta urteko jarduera-plan bat.
- 44c) Egoerari buruzko diagnostiko bat eta urte anitzeko jarduera-plan bat.
- 44d) Horietako erantzun bat ere ez da zuzena.

- 45 ZEIN EGINKIZUN EZ DA BEGIRA BATZORDEARENA? (BEGIRA, PUBLIZITATE ETA KOMUNIKAZIO EZ-SEXISTA ERABILTZEKO AHOLKU BATZORDEA)?**
- 45a) Titularasun publikoko eta pribatuko komunikabideetan igortzen den komunikazioa eta publizitatea aztertzea eta horren segimendua egitea.
 45b) Arauak egitea komunikazio eta publizitate ez-sexistaren arloan.
 45c) Herritarrek eta erakundeek egindako kexak jasotzea eta aztertzea.
 45d) Komunikazio eta publizitate ez-sexistaren arloko prestakuntza eta aholkularitza ematea komunikabideetako zuzendariei eta teknikariei.
- 46 NORTZUEK OSATZEN DUTE BEGIRA (PUBLIZITATE ETA KOMUNIKAZIO EZ-SEXISTA ERABILTZEKO AHOLKU BATZORDEA)?**
- 46a) Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko eta Eusko Jaurlaritzako sailetako ordezkariek.
 46b) Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko, Euskal Irrati Telebistako, EHUKO eta kontsumitzaileen elkarteen ordezkariek eta genero-berdintasunaren arloko adituek.
 46c) Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko, Eusko Jaurlaritzako sailetako, Euskal Irrati Telebistako, EHUKO, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Aholku Batzordeko eta kontsumitzaileen elkarteen ordezkariek eta genero-berdintasunaren arloko adituek.
 46d) Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko, Eusko Jaurlaritzako sailetako, Euskal Irrati Telebistako, EHUKO, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Aholku Batzordeko, kontsumitzaileen elkarteen eta Publizitatearen Autokontrol Batzordeko ordezkariek eta genero-berdintasunaren arloko adituek.
- 47 ZER JOMUGA DU EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAK?**
- 47a) Emakumea azpiratzea eta menderatzea, eta harremanean aginpide- eta botere-jarrera bat atxikitzea.
 47b) Kalte edo lesio jakin bat eragitea.
 47c) Mugak jartzea diruari buruzko informazioa edukitzeari edo dirua edo beste ondasun ekonomiko batzuk erabiltzeari.
 47d) Emakumeak ugalketa-zereginetan arituko diren gizarte bat lortzea.
- 48 ZER JOTZEN DA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIATZAT?**
- 48a) Bizi publikoan edo pribatuaren sexuan oinarrituta egiten den edozein ekintza bortitz, baldin eta ekintza horrek emakume bat kalte fisikoa, sexuala edo psikologikoa edo sufri mendua ekartzen badio edo ekar badiezaiok; ekintza horiek egitearekin mehatxatzea, hertsapenak egitea eta askatasuna arbitrarioki kentzea ere indarkeriatzat jotzen dira.
 48b) Bizi publikoan edo pribatuaren sexuan oinarrituta egiten den edozein ekintza bortitz, baldin eta ekintza horrek emakume bat kalte fisikoa edo sexuala ekartzen badio edo ekar badiezaiok; mehatxatzea eta hertsapenak egitea ez da indarkeriatzat jotzen.
 48c) Emakume batek genero- edo bikote-harremanen ondorioz jasaten duen indarkeria, edonolakoa dela ere.
 48d) Erantzun guztia dira zuzenak.

49 ETXEKO TRATU TXARRAK ETA SEXU INDARKERIA JASATEN DITUZTEN EMAKUMEEI HARRERA HOBEA EGITEKO ERAKUNDEEN ARTEKO II. AKORDIOAREN JARDUTE-PROTOKOLOAN EZARRITAKOAREN ARABERA, SEXU-ERASO EDO -ABUSU BAT GERTATZEN DENEAN, ZER EGIN BEHAR DU OSPITALEKO EDO AUZITEGIKO MEDIKU BATEK?

- 49a) Lesioen partea egingo du; parte hori zuzenean bidaliko da emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegira edo guardiako epaitegira.
- 49b) Lesioen partea egingo du; parte hori biktimari irakurriko zaio, eta emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegira edo guardiako epaitegira bidaliko da.
- 49c) Lesioen partea egingo du; parte hori biktimari irakurriko zaio, eta emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegira edo guardiako epaitegira bidaliko da, biktimak horretarako baimena ematen duenean baino ez.
- 49d) Lesioen partea egingo du; parte hori biktimari irakurriko zaio, eta guardiako epaitegira bidaliko da, baldin eta biktimak horretarako baimena ematen badu.

50 ETXEKO TRATU TXARRAK ETA SEXU INDARKERIA JASATEN DITUZTEN EMAKUMEEI HARRERA HOBEA EGITEKO ERAKUNDEEN ARTEKO II. AKORDIOAREN JARDUTE-PROTOKOLOAN, JARDUERA BATZUK AURREIKUSTEN DIRA. ZEIN EREMUTAN EGINGO DIRA JARDUERA HORIEK?

- 50a) Osasun-eremuan, polizialean, judizialean eta gizarte-zerbitzuen eremuan.
- 50b) Osasun-eremuan, polizialean, judizialean, gizarte-zerbitzuen eremuan eta hezkuntza-eremuan.
- 50c) Eremu polizialean, judizialean, gizarte-zerbitzuen eremuan, lan-eremuan eta hezkuntza-eremuan.
- 50d) Osasun-eremuan, polizialean, judizialean, lan-eremuan eta gizarte-zerbitzuen eremuan.

ORDEZKO GALDERAK

51 30/1992 LEGEA. PROZEDURAREN AMAIERA. EGOERA HAUETAKO ZEINEK EMANGO DIO AMAIERA ADMINISTRAZIO-PROZEDURARI?

- 51a) Iraungitze-deklarazioak.
- 51b) Gerora sortutako arrazoia direla-eta prozedura ezin bada inola ere aurrera eraman.
- 51c) Eskaeraren oinarri den eskubideari uko egiteak.
- 51d) Egoera horiek guztiak amaiera ematen diote prozedurari.

52 GENERO-INDARKERIAZ SENTSIBILIZATZEKO ETA HURA PREBENITZEKO PLAN NAZIONALA

- 52a) Batzorde batek kontrolatzen du. Batzorde horretan, eraginpeko pertsonak ere badaude ordezkatuta.
- 52b) Gizonentzat nahiz emakumeentzat da.
- 52c) Prestakuntza-programa osagarri bat du genero-indarkeriaren egoeretan esku hartzen duten profesionalentzat.
- 52d) Erantzun guztiak dira zuzenak.

53 1/2004 LEGE ORGANIKOA, ABENDUAREN 28KOAN, GENERO-INDARKERIAREN AURKA OSO OSOKO BABESA EMATEKO NEURRIEI BURUZKOAN. LEGE HORRETAN, ZILEGI EZ DEN PUBLIZITATEAREN BUKARAZTE-AKZIOA AUZITEGIETAN EGIKARITZEKO AUKERA AURREIKUSTEN DA. NORAK BALIATU DEZAKE AUKERA HORI?

- 53a) Emakumearenaganako Indarkeriaren kontrako Gobernuaren Ordezkaritza Bereziak, Emakumearen Instituak edo autonomia-erkidego bakoitzean horren baliokide den organoak eta helburu bakartzat emakumeen interesak defendatzea duten elkartek.
- 53b) Emakumearenaganako Indarkeriaren kontrako Gobernuaren Ordezkaritza Bereziak, Emakumearen Instituak eta helburu bakarra emakumeen interesak defendatzea duten elkartek.
- 53c) Emakumearenaganako Indarkeriaren kontrako Gobernuaren Ordezkaritza Bereziak, Emakumearen Instituak, Fiskaltzak eta helburu bakarra emakumeen interesak defendatzea duten elkartek.
- 53d) Emakumearenaganako Indarkeriaren kontrako Gobernuaren Ordezkaritza Bereziak, Emakumearen Instituak edo autonomia-erkidego bakoitzean horren baliokide den organoak, Fiskaltzak eta helburu bakarra emakumeen interesak defendatzea duten elkartek.

54 EMAKUMEARI BURUZKO IV. MUNDU KONFERENTZIAN (BEIJING, 1995), GENERO KONTZEPTUA HARTU ZEN, ZEINA HONELA ZEHAZTU BAITZEN:

- 54a) Sexuan oinarrituta, emakumearentzat eta gizonarentzat eraikitzen diren rol sozialak dira: testuinguru sozioekonomiko, politiko eta kultural jakin baten menpe egon ohi dira; beste faktore batzuen eraginpean ere badaude, hala nola adina, maila, arraza eta etniaren mende.
- 54b) Analisi kategoria bat da: zientzia politiko eta sozialetan sartu da azken urteetan, eta, horri esker ulertu ahal dugu zer balio eta sinesmen ditugun giza harremanak eraikitzerakoan, bai sexuen artean, bai gizarte-mailen artean.
- 54c) Aldagai bat da: emakumeen eta gizonen artean eta belaunaldien artean dauden menderatze-eta azpiratze-harremanak aztertzen ditu.
- 54d) Sexuen arteko botere-banaketa desberdina da: horrek eragina du emakumeek eta gizonek beren gaitasun pertsonalak, profesionalak eta sozialak garatzeko moduan.

55 ZER HELBURU DITU EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEAK?

- 55a) Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzea —benetako eta eraginkorra—, EAEko bizitza politikoaren, ekonomikoaren, kulturalaren eta sozialaren eremu guztietai, eta Euskadin emakumea baztertzeko dagoen edozein modu deuseztatzea.
- 55b) Sexuen arteko berdintasuna bideratzeko baldintzak sustatzea, eta Euskadin emakumea baztertzeko dagoen edozein modu deuseztatzea.
- 55c) Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzea —benetako eta eraginkorra—, EAEko bizitza politikoaren, ekonomikoaren, kulturalaren eta sozialaren eremu guztietai.
- 55d) Sexuen arteko berdintasuna bideratzeko baldintzak sustatzea, berdintasun hori —izatez eta zuzenbidez— osotasunean garatzeko dauden oztopoak kentzea, eta Euskadin emakumea baztertzeko dagoen edozein modu deuseztatzea.

***Bolsa de Trabajo de personal
técnico en materia de igualdad de
mujeres y hombres***

1^{er} ejercicio, parte teórica

Modelo A

27/02/2015

1 LOS PROCEDIMIENTOS ADMINISTRATIVOS SE INICIAN:

- 1a) Siempre de oficio.
- 1b) De oficio o a solicitud de persona interesada.
- 1c) Nunca de oficio.
- 1d) De oficio, siempre como consecuencia de orden superior.

2 LA TERMINACIÓN DEL PROCEDIMIENTO CON ABANDONO DEL DERECHO POR PARTE DEL INTERESADO SE LLAMA:

- 2a) Resolución.
- 2b) Caducidad.
- 2c) Renuncia.
- 2d) Revocación.

3 A EFECTOS DE LA LEY 2/2004, DE 25 DE FEBRERO, DE FICHEROS DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL, SE ENTENDERÁ POR FICHERO:

- 3a) Todo conjunto organizado de datos de carácter personal, cualquiera que sea la forma o modalidad de su creación, almacenamiento, organización y acceso.
- 3b) Cualquier información concerniente a personas físicas identificadas o identificables.
- 3c) Cualquier operación y/o tratamiento técnico de carácter automatizado o no, que permita la recogida de datos.
- 3d) Toda manifestación de voluntad que consienta el tratamiento de datos personales.

4 EN RELACIÓN CON EL ÁMBITO Y LAS FINALIDADES DETERMINADAS, EXPLÍCITAS Y LEGÍTIMAS PARA LAS QUE SE HAYAN OBTENIDO, LOS DATOS DE CARÁCTER PERSONAL SÓLO SE PODRÁN RECOGER PARA SU TRATAMIENTO CUANDO SEAN:

- 4a) Adecuados, pertinentes y no excesivos.
- 4b) Adecuados, pertinentes y necesarios.
- 4c) Necesarios, pertinentes y no excesivos.
- 4d) Adecuados, necesarios y no excesivos.

5 ¿ESTÁ RECONOCIDO AL TITULAR DE LOS DATOS PERSONALES EL DERECHO A EXIGIR QUE SUS DATOS SEAN SUPRIMIDOS?

- 5a) Sí, es el derecho de rectificación.
- 5b) Sí, es el derecho de cancelación.
- 5c) Sí, es el derecho de oposición.
- 5d) No, lo máximo que puede conseguir es el bloqueo de los datos pero no su supresión.

6 EL PLAN PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES QUE APRUEBA EL GOBIERNO VASCO EN CADA LEGISLATURA:

- 6a) Constituye un plan general que recoge coordinada y globalmente las líneas de intervención y directrices que deben orientar la actividad de los poderes públicos vascos en materia de igualdad de mujeres y hombres.
- 6b) Los departamentos del Gobierno Vasco, las diputaciones forales y los ayuntamientos aprueban planes o programas para la igualdad de acuerdo con líneas de intervención y directrices de dicho Plan.
- 6c) Los planes y programas de los departamentos del Gobierno Vasco, las diputaciones forales y los ayuntamientos se informan por Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer.
- 6d) Todas las respuestas son válidas.

7 EL SISTEMA SEXO-GÉNERO SE REFIERE AL:

